

ALDI BATERAKO EGONALDIA EGOITZAN, ZAINZAILIAK ATSEDEN HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Desgaitasunen bat duten pertsonen **zaintzaile nagusiak eta senideak**, zaintzan atsedena behar dutenak.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedena hartzeko beharra.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Aldi baterako ostatua desgaitasunen bat duten pertsonentzat, normalean familia zaintzaileak artatzen dituztenak beren etxeetan ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedena hartu behar du, oporretara joan behar du...).

Norentzat?

Atsedena behar duten pertsona desgaituen **zaintzaile nagusiak eta senideak**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ezgaitasuna duen pertsona zaindua eta zaintzailea etxebizitza eta udalerrri berean erroldaturik egotea.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea 12 hilabetez.

Atsedeen hartzeko egonaldia egingo den egoitza-zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Araban](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Bizkaian](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)